



LAN ARRISKUEN PREBENTZIORAKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA

1.- KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren xedea Urretxuko Udalera lan arriskuen prebentziorako zerbitzua ematea izango da.

2.- KONTRATATU BEHARREKO ESPEZIALITATEAK

Kontratatu beharreko espezialitateak honako hauek izango dira:

- A. Osasunaren zaintza.
- B. Espezialitate teknikoak: lan segurtasuna, higiene industrial, ergonomia eta psikosoziologia.
- C. Larrialdi eta auto-babes planak.

3.- BALDINTZA OROKORRAK

Agiri honetan ezarritakoaren arabera, enpresa esleipendunak zerbitzua eskaini ahal izateko giza-zein material-bitarteko nahikoak jarriko ditu, zerbitzuaren gutxieneko zein gehieneneko dedikaziorik ez da zehaztuko.

Zerbitzua eskaini ahal izateko enpresa esleipendunaren instalazioak erabiliko dira, beti ere, zenbait ikuskapen, balorazio zein azterketa egiteko Urretxu Udaletxera bileretan zein aurkezpenetan parte hartzera joan behar ez badu.

Enpresa esleipendunaren teknikoek Udaleko Lan Segurtasun eta Osasunerako Batzordean parte hartu beharko dute, laguntza teknikoa eskaintzeko eta jardunaren inguruko txosten zein memoriak aurkezteko.

Mediku azterketak eta hauen emaitzak edota datu pertsonalak dituen edozein txostenek Datuen Babeserako Lege Organikoarekin bat eginez konfidentziasun osoa izango dute.

Teknikoek Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan komunikatzeko gaitasuna izango dute. Halaber, dokumentazioak entitateak horretarako ezarritako hizkuntza edo hizkuntzetan egingo dira. Ez da onartuko data behar bezala jarri gabe edo sinatuta ez dagoen dokumentaziorik.

4.- OSASUN ZAINZAREN ESPEZIALITATEA

4.1.- EXEKUZIO BALDINTZAK



Zerbitzuak agiri honen 8. atalean ezarritako gutxieneko baldintzak beteko dituen profesional talde batek emango ditu. Talde honek osasunaren zaintza, eta kontrola zein mediku azterketaren ardura hartuko du bere gain.

Entitateko langileen osasunaren jarraipena (odol analisiak, audiometria frogak, ikusmena...) indarrean dagoen legediaren arabera, gaitasun tekniko eta formakuntza mailako pertsonalak egingo du.

Mediku azterketak Urretxun edo Zumarragan egingo dira, enpresa esleipendunaren instalazioetan, alokatuetan, kontzertatuetan edo horretarako berariaz lagatako bestelakoetan; beti ere, jardun honetarako behar diren ziurtagiri guztiak edukita. Zerbitzua emango duten langileak, ahal dela, enpresa esleipenduneko langileak izango dira; dena den, legeak ezarritakoaren arabera jardun hau subkontratatua izan daiteke. Subkontratazioa ematen den kasuetan, langileek kontratazio honetarako egin den agirian ezarritako baldintzak bete beharko dituzte. Azterketa hauek egiteko eskaintzaren barruan instalazioak eta pertsonala zehaztuko dira, bai enpesakoa bertakoa bai (kasu bakoitzean ondo zehaztuta) subkontratatua.

4.2.- EGIN BEHARREKO JARDUERAK

Honako jarduera hauek egin beharko dira:

a) OSASUN ZAINKETARAKO PROIEKTUA

- Osasun Zainketarako Proiektua egitea, bertan Osasun Ministerioak eta autonomia erkidegoek ezarritako protokolo guztiak jasoko dira lanpostu bakoitzari egokituak.

b) URTEKO PROGRAMA

- Osasunaren Zainketarako URTEKO PROGRAMA egitea, Udalarekin batera egingo da eta urtero urtarrilean aurkeztuko da.

- Programa honetan jarduera bakoitza betetzeko epeak zehaztuko dira, halaber, nork burutu behar dituen.

c) MEDIKU AZTERKETAK

- Hasieran kontratu berriak ematen direnean eta lanpostuan lehenengo aldiz aritzen denean. Mediku azterketa hauek eskatu eta gehienez astebeteko epean egingo dira.

- Aldizkakoak: langile guztientzat eta protokoloan zehaztutako maiztasunaz.

- Lanposturen bati dagozkion egin beharrekoetan aldaketa nabarmenik edo arrisku egoerarik ematen bada.

- Osasun arazoak medio lanuzte luzeak izan ondoren berriro lanean hasterakoan. Honen helburua, lanuzte hauen arrazoiak zehaztu eta langileen babeserako neurri egokiak hartzea izango da.

MEDIKU AZTERKETAREN EDUKIA

- HISTORIA KLINIKO-LABORALA



- Lan anamnesia, non lanpostuaren deskripzio zehatza, bertan aritutako denbora, lanean dituen arriskuak eta ezarritako prebentzio neurriak jasoko diren. I
- Anamnesia pertsonala.

- MIAKETA FISIKOA

- Azterketa fisiko neurologikoa.
- Azterketa fisiko kardiopulmonarra.
- Azterketa fisiko abdominala.
- Azterketa fisiko osteoartikularra.
- Lanpostu guztietarako den azterketa arrunt hau protokoloan edota arriskuen arabera zehaztuta dagoen eta beharrezkoa den bitartekoak erabilita egingo da (tonometria, Epworth testa, Jaegger testa, etab.).

- MIAKETA OSAGARRIAK

- Ikusmenaren kontrola, Espirometria eta Audiometria homologatutako kabinan, lanpostuaren protokoloak hala zehazten duenean.
- Otoskopia.
- Elektrokardiograma.
- Odol eta gernu analisiak:
 - Hemograma eta sedimentazio globularraren abiadura.
 - Odolaren biokimika: kreatinina, glukosa, kolesterol orokorra, HDL y LDL, triglizeridoak, azido urikoa, GOT, GPT y CGT (gibel enzimak).
 - Gernu analisia: ez ohikoak eta sedimentazioa.
 - PSA orokorra (50 urtez geroztik prostata hautematea).
 - Emakumezko guztientzako proba zehatza: Burdina - Ferritina

Era berean, osasun arazoak edo arrisku egoeran egonda lanpostu aldaketa eskatzen duten langileei osasun azterketa berezia egingo zaie; bai beraiek bai enpresak berak eskatuta.

URTEKO PROGRAMAREN jarraipen zehatza ematea ezarritako epeak betetzen ari diren ikuskatzeko.

d) ARRISKUEN AZTERKETA

- Dagokion pertsonal sanitarioak lanleku guztiak bisitatu eta lanpostuen azterketa mediko-laboral berezia zein arriskuen azterketa egingo ditu.

- Haurdun, umea izan berri edo edoskitzaroan edo arrisku zehatz batzuetarako joera duten langileek izan ditzaketen arriskuen azterketa.

e) AZTERLAN BEREZIAK

- Haurdun, umea izan berri edo edoskitzaroan edo arrisku batzuetarako joera duten langileek izan ditzaketen arriskuen azterlana.

- Haurdun, umea izan berri edo edoskitzaroan edo arrisku zehatz batzuetarako joera duten langileek izan ditzaketen arriskuen azterlana eta neurri prebentiboak ezartzea.

- Lan istripuen ikerketa txostenak, eskatu eta astebetera eskura jarriko direnak.

- Erikortasun eta epidemiologia azterlanak.



- Langileek izaten dituzten gaixotasunen azterlana, lanpostuarekin harremanik baduten zehazteko eta, hala bada "lan gaixotasuna izan daitekeen susmoa den komunikazioa" egin
- Faktore psikosozialek gaixotasunetan izan dezaketen eragina aztertzea. Honako hauei lotuta:
 - genero rola, emakumeak gainkargatzen dituztenak zainketa lanak jartzen zaizkienean.
 - genero indarkeria eta hauen hainbat: lanean sexu jazarpenera eta indarkeria jasaten duten emakumeen egoera.

f) ZAINKETA SANITARIO POST-OKUPAZIONALA

Lanpostu bakoitzak berez dakartzan arriskuak harreman laborala bukatu eta gero bere horretan jarraitzen badute, prebentziorako zerbitzu medikuek zainketa luzatu behar diren diagnostikoaren txosten konprentziboa bat egingo dute eta osasun egoera zaintzearen arrazoiak, lanpostuaren deskribapen zehatza, lan egoeraren deskribapen zehatza, indarrean egongo den denbora, lan egoeran antzemandako arriskuak eta hartutako prebentzio neurriak. Txosten hau langileaz arduratzen diren asistentzia sanitarioko arduradunei igorriko zaie. Honen eragina izan dezaketen langileei ere kopia ale bat emango zaie (306/1999 Dekretuko 11. artikulua, Lan Arriskuen prebentziorako azaroaren 8ko 31/1995 legearen 22.5 artikulua).

g) GAITASUN KALIFIKAZIOA

Lanpostuak berekin dakartzan eginkizunak betetzeko gaitasun kalifikazioa.

h) MEDIKU TXOSTENAK

Txosten medikuak (konfidentzialtasun osoz) egin eta erregistratzea, hauek mediku azterketan egindako mediku praktika eta proba guztietan oinarrituta egongo dira. Langile bakoitzari bakarrik zuzendutako informazio dokumentua da, erabat pertsonal eta konfidentziala.

i) URTEKO MEMORIA

Prebentzio zerbitzuak egin dituen jardueren URTEKO MEMORIA, non genero ikuspegia kontuan hartuta azterketa bat izango duen, beti ere, egindako lan guztietan oinarrituta.

j) LAN IKUSKAPENAK

OSALAN edo Lan Ikuskaritzara asistentzia, hala eskatuz gero.

5.- ESPEZIALITATE TEKNIKOAK

5.1 EXEKUZIO BALDINTZAK

Atal honetan honako espezialitate hauek egongo dira barne: psikosoziozologia, ergonomia, lan higiena, lanpostuen segurtasuna.

Esleipendun enpresak pertsona bat jarriko du Lan Arriskuen Prebentziorako goi mailako formakuntza eta eskarmentua, erabakitze ahalmena duena. Pertsona honek kontratua indarrean



dagoen sasoian kontratu honek sor ditzakeen edozein gertakari zuzendu, koordinazioa eta komunikazioaz gain kontratu honek duen xedeak eragin ditzakeen jarduera guztiez arduratuko da. Udalak bi hilean behin jarraipen eta planifikazio bilerak antolatuko ditu.

5.2 EGIN BEHARREKO JARDUERAK

Honako hauek dira:

5.2.1 OROKORRAK

a) URTEKO PROGRAMA

- Prebentzio mailan jardueren URTEKO PROGRAMA osatzea, udal ordezkariarekin SPArekin eta Udal teknikariek elkarlanean. Urtero urtarrilean aurkeztuko da.
- Programa honetan jarduera bakoitzaren burutze data eta nor egin behar duen zehaztuko da.
- Jarritako epeak betetzen ari diren ziurtatzeko URTEKO PROGRAMAREN aldizkako jarraipena egingo da.

b) LAN IKUSKAPENAK

- Lan ikuskapen plana egin, batez ere, Kanpo Zerbitzuen arloan.
- Ikuskapen planak ezartzeko laguntza eta jarraipena.
- Ikuskapen planen eraginkortasuna baloratu.
- Lan ikuskaritza bileretan parte hartzea.

c) PREBENTZIO PLANA

- Prebentzio Plana osatzea Udal ordezkariarekin SPArekin, gehienez bi hilabetean behin.
- Ordezkariarekin elkarlanean Plana Udal ordezkari eta teknikariei aurkeztea.
- Ordezkariarekin elkarlanean Plana ezartzeko laguntza eta jarraipena.
- Lan Arriskuaren prebentzioa enpresaren kudeaketa sistema orokorrean integratzearen baliagarritasuna baloratzea, hitzartutako jardueri dagokienean.

d) URTEKO MEMORIA

- Burututako jardueren URTEKO MEMORIA egin.

5.2.2 LAN SEGURTASUNA

a) LAN ARRISKUEN EBALUAZIOA



- Lan arriskuen hasierako ebaluazioa edo orokorra egitea edo berrikustea edota gertatuz gero hauek gaurkotzea:
 - o Langileak bere osasunean kalteren bat izan duenean (lan istripua).
 - o Lan egoeran aldaketaren bat.
 - o Aldizkakoak, lan osasun eta segurtasun batzordeak zehaztutakoak.
- Arriskuak garrantziaren arabera lehenestea.
- Lan arriskuen prebentziorako legediaren azterketa zehatzak.

b) NEURRI ZUZENTZAILEEN PLANIFIKAZIOA

- Prebentziorako neurriek erakarritako jarduera zuzentzaileak planifikatzea.
- Jarduera zuzentzaileen planifikazioaren jarraipena, jarritako epeak betetzen ari diren aztertzeko eta lan osasuna eta prebentziorako batzordeak hartutako neurrien jarraipen administratiboa.

c) BARNEKO INFORMAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA

- Prebentzio neurriak eta arriskuen informazioa:
 - Lanpostuak berez dituen arriskuak.
 - Instalazioen arriskuak.
 - Hirugarrengoen jardunetik sor daitezkeen arriskuak.
 - Psikosozial aldetik sor daitezkeen arriskuak.

d) LANGILEEN FORMAKUNTZA

- Lan arriskuen prebentzio mailan langileen formakuntza teoriko zein praktikoa:
 - o Aukeratutako langileena, SPArekin bitartekaritza egiteko udal ordezkariarena bereziki.
 - o Prebentzio ordezkariena.
 - o Langile guztiena, euren lanpostuak dituen arriskuen arabera.
 - o Arrisku bereziak izan ditzaketen langileena
 - o Prebentzioaren integrazioarako erdi mailako arduradunena.

e) SEGURTASUN INSTRUKZIO, PROZEDIMENDU ETA ARAUAK

- Instrukzioak, segurtasun fitxak, prozedimendua eta segurtasun arauak egitea.

Segurtasun eta prebentziorako neurriak zehazteko protokoloak egingo dira; udal brigadak egin beharreko bai muntaia bai biltegitratze lanetarako, bai beste edozein lanetarako. Esaterako :

- ✓ Muntaiak (oholtzak, karpak, postuak, instalazio elektrikoak...)
- ✓ Obrak (espaloiak, bideak asfaltatzea...)
- ✓ Hiri tresneriaren mantenimendua (eserlekuak, barandak, bolardoak...)
- ✓ Margotze lanak (zebrabideak, aparkalekuak...)
- ✓ Mentenimendu lanak udal eraikinetan.



f) ISTRIPU ETA GAIXOTASUN PROFESIONALEN IKERKETA

- Baja eragiten duten lan istripuen eta gaisotasunen ikerketa.
- Istripua gertatuz gero jarduera edo lanpostuari dagokion Lan Arriskuen Ebaluazioa burutu, berrikusi edo gaurkotu.
- Jarduera hau arautzen duen prozedimendua egin edo ezarri.
- Istripu arriskuen azterketak.

g) LAN EGOERAREN ALDIZKAKO KONTROL ETA BERRIKUSPENAK. IKUSKAPENAK

- Lan egoeraren aldizkako kontrolak lan talde, instalazio eta lanlekuetan ikuskapenak egingo dira. Obretako brigadaren lan taldeetan, instalazioetan eta lanlekuetan ikuskapenak hiru hilabetean behin egingo dira. Era berean, aldizkako ikuskapenak egingo dira langileek EPlen ematen dieten erabilpena aztertzeko
- Ikuskapen bakoitzeko dagokion txostena egin eta banatu.

h) EROSKETA KONTROLA

- Material berria eskuratzeko neurriak jartzea; beti ere, osasun eta segurtasun irizpideei jarraituta.
- Erosketen kontrola ezartzeko laguntza eta jarraipena.
- Udaleko arlo ezberdinetan erosketa kontrola ezartzearen baliagarritasunaren balorazioa.

i) NORBERA BABESTEKO EKIPAMENDUA (EPlak)

- Lanpostu guztietan EPlen inbentarioa egitea edota berrikustea. Babes kolektiborako ekipamenduen azterketa.
- Langileen benetako beharretara EPlen egokitzapenaren azterketa eta jarraipena.

j) LAN TALDEEN AUDITORETZA

- Lan taldeen auditoretza egitea uztailaren 18ko 1215/1997 Errege Dekretuaren arabera, non lan taldeetan aritzen diren langileek segurtasun zein osasun mailan izan beharreko gutxieneko neurriak zehazten diren.

Udal brigadako lan ekipamenduak auditatuko dira eta arreta berezia jarriko da ibilgailuetan, pertsonen eta materialen altxatze sistemetan, eskuzko erremintetan edo dena delakoetan.

Lan ekipamenduen egokitzea 1215/1997 Errege Dekretuan oinarrituta. Araudiarekin bat ez datozen ekipamenduen balizko aukerak izango ditu barne.

Lan ekipamenduen egokitzapen planerako laguntza eta jarraipena.

Egokitzapen planaren integrazioaren eraginkortasuna baloratzea.



k) SEINALEZTAPENA

- Lan leku guztiak seinalatatzeko azterketa-proposamena eta aurrera eramateko planifikazioa. Errotuluetan testuez lagundutako piktogramak nagusi izango dira, gutxienez euskaraz egongo dira hala behar izanez gero.
- Seinaleztapen planaren jarraipena.
- Seinaleztapen planaren integrazioaren eraginkortasunaren jarraipena.

5.2.3 HIGIENE INDUSTRIALA

a) HIGIENE ARRISKUEN BALORAZIOA

- Osasunarentzat higiene arriskuaren ebaluazio higieneko kualitatiboa: ebaluazio berezitua egin agente kimiko/fisiko arriskutsuak zehaztu.
- Agente kimikoen ebaluazio zehatza.
- Agente fisikoen ebaluazio zehatza.
- Ebaluazioak egin ahal izateko beharrezkoak diren laborategiko neurketa eta analisiak.

b) HIGIENE INDUSTRIALAREN ARLOAN NEURRI ZUZENTZAILEEN PROGRAMA

- Prebentziorako jardueretatik eratorritako neurri zuzentzaileen programa egiteko aholkularitza.
- Ezarritako neurri zuzentzaileen aldizkako jarraipena, jarritako epeak betetzen ari diren ziurtatzeko.

c) ARRISKUEN INFORMAZIOA

- Produktu kimiko bakoitzaren arrisku fitxak egitea.

d) LANGILEEN FORMAKUNTZA

- Higienean arriskuaren aurreko formakuntza eta informazioa.

e) SEGURTASUN ARAUAK, INSTRUKZIOAK ETA PROZEDIMENDUAK

- Higiene arriskua duten jarduerak egiteko prebentziorako arau eta instrukzioak egitea.

f) ISTRIPU ETA GAIXOTASUN PROFESIONALEN IKERKETA

- Bajarekin eta bajarik gabeko istripu/gorabeherak eta higiene industrialarekin lotura duten gaixotasun profesionalak ikertzea, "sexuaren" aldagaia sistematikoki sartuz eta genero adierazleak erabiliz.

g) ALDIZKAKO KONTROLA

- Aldizka jarraipena emateko Ebaluazio Higienikoak egingo dira.



5.2.4 ERGONOMIA ETA PSIKOSOZIOLOGIA APLIKATUA

a) **ARRISKU ERGONOMIKO ETA PSIKOSOZIALEN EBALUAZIOA**

- Arrisku ergonomiko eta psikosozialen hasierako ebaluazio kualitatiboa: ebaluazio zehatzagoa egin ahal izateko elementu arriskutsuak zehaztea, beti ere, gizon eta emakumezkoen arteko aldeak eta genero ezberdintasunak kontuan hartuta.
- Arrisku ergonomiko zehatzen ebaluazio ergonomikoa: karga fisikoa, ingurugiroa, PVD, etab.
- Arrisku psikosozialen ebaluazioa, honetan ere, generoa kontuan hartuko da.
- Genero indarkeriarekin zerikusia duten arriskuak baloratzea: lanean eman daitekeen jazarpen sexual edo sexista.

b) **ERGONOMIA ETA PSIKOSOZIOLOGIA APLIKATUAREN ARLOAN NEURRI ZUZENTZAILEEN PROGRAMAZIOA**

- Prebentziorako jardueretatik eratorritako neurri zuzentzaileen programarako aholkularitza.
- Interbentzio psikosozialeko programa.
- Ezarritako epeak betetzen ari diren ziurtatzeko neurri zuzentzaileen programaren aldizkako jarraipena.

c) **BARNE INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIOA**

- Ergonomia eta Psikosoziologia mailako informazioa.

d) **LANGILEEN FORMAKUNTZA**

- Ergonomia eta Psikosoziologia aplikatuan formakuntza.

e) **ISTRIPU ETA GAIXOTASUN PROFESIONALEN IKERKETA**

- Baja edo baja sortzen ez duten istripu/gertakariak eta Ergonomia eta Psikosoziologia aplikatuarekin harremana duten gaixotasun profesionalen ikerketa, "sexuaren" aldagaia beti kontuan hartuta, emakumezko eta gizonezkoen arteko balizko ezberdintasunak zehaztu eta genero adierazleak erantsi.

f) **GATAZKETAN ESKU-HARTZEA**

- Jatorri psikosozialeko gatazka eta bestelako arazoetan eragitea, gatazkaren arrazoiak argitu, hauen irtenbideak bilatzeko sistema bat sortu, kanpoko bitartekaritza lanak egin, etab. Kontratua egiten duen entitatearekin hala adosten den kasuetan, banakako psikoterapia saioak eskaini. Jatorri psikosoziala duten gatazketan enpresak hauen bitartekaritza egiteko izendatutakoei formakuntza berezia eman.

6. LARRIALDI ETA AUTOBABES PLANAK



a) LARRIALDI PLANEN BERRIKUSPENA:

- I ERANSKINEAN orientagarri agertzen diren udal eraikinen larrialdi planak urtero berrikusiko dira.
- Larrialdi plan hauek lan arriskuen Prebentziorako Legeak (20 art.) araututakoaren arabera egingo dira. Eraikinaren ezaugarriak bat badatoz azaroaren 2ko 277/2010 Dekretuan agertzen direnekin hauxe aplikatuko da. Dekretu honek hainbat jarduera, zentro eta establezimenduk larrialdi egoerei aurre egiteko auto-babeserako betebeharrak zehazten ditu (aurrerantzean Auto-babeserako Euskal Araua).

b) EGITEA ETA EZARTZEA

- Aplikagarria den kasuetan, 2010 Auto-babeserako Euskal Planean oinarrituta Auto-babeserako Planak berrikustea. Aplikagarria ez den kasuetan, Lan Arriskuen Prebentziorako Legearen arabera egingo dira.
- Auto-babeserako Planak ezarri eta zabaldu.
- Emergentsia Taldeak eratzea.
- Ahal den kasuetan, simulakroak egitea.
- Udalak zerbitzua ematen duen enpresaren eskura jarriko du arriskua duten instalazioen zerrenda (ezaugarriak barne) eta Autocad formatuan honako mapa hauek: kokapen eta solairu nagusien planoak eta suteen babeserako instalazioenak.
- Zerbitzua emango duen enpresak udalak emandako planoen arabera dagozkion ebakuzio bideak, arriskuen kokapena eta sektorizazioa.
- Hala behar izanez gero, Udalaren eraikinen auto-babeserako planak urtero berrikusiko dira, eraikin hauen zerrenda ERANSKINEAN dago.

c) URTERO GAURKOTZEA

Planaren ezarpenaren gaurkotzea:

- a) Planean eragiten duten giza taldeak.
- b) Antzemandako neurri zuzentzaileen egoera.
- c) Partaide berri zein zaharrentzako berrikuspen ikastaroa.
- d) Simulakroa planifikatu eta burutu.
- e) Simulakroaren txostena; bertan emaitzak, denborak, gertakariak eta neurri zuzentzaileak jasoko dira.

d) LARRIALDI ETA AUTOBABES PLAN BERRIAK EGITEA

Eranskinean zerrendatu gabeko udal eraikinetan larrialdi eta autobabes planak egiteko beharrak sortzen direnean, enpresa lizitatzailak gauzatuko ditu, beti ere bere proposamenean propio aipatutako proposamenaren arabera, argi eta garbi zehaztu beharko duelarik larrialdi plan berri bati eta autobabeseke bati dagokion prezioa.

I. ERANSKINA / ANEXO I

Lan Arriskuen Prebentziorako Legearen 20. artikuluaen arabera, LARRIALDI PLANA beharrezkoa duten eraikinen zerrenda.

Udaletxea
Kultur Etxea
Udal liburutegia
Juan de Lizarazu Erakustokia
Gaztebidean
Bake Epaitegia
Udal igerilekuak

Eraikin hauek dagoeneko badute Larrialdi Plana; beraz, berrikuspena egin beharko da.

Dituzten ezaugarriak kontuan harturik Auto-babeserako Euskal Araua (277/201) aplikagarria den eraikinen zerrenda, hauek AUTOBABESERAKO PLANA behar dute.

Eguneiko Zentrua/ Jubilatue Egoitza
Aldiri Kiroldaia
Ederrena pilotalekua
Labeaga Aretoa
Santa Barbara aterpetxea

2. ERANSKINA / ANEXO 2

Urretxuko Udaletxeko lanpostu zerrenda:

Lan-zentruak	Lanpostuen kopurua
Udaletxea	30
Udal Liburutegia	1
Kultur Etxea	5
Mugitegiko biltegiak	7
Gainzuri Ikastetxe publikoa	1